



EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ARLOA  
ÁREA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES



EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

Azken asteetan neska gazteen kontra emandako eraso sexisten aurrean, Urola Garaiko Udal Elkarteko

Berdintasun arloak adierazi nahi du:

- Udal elkarte honetako emakumeek edonon eta edonoiz sufri dezaketen edozein motatako mehatxu, jazarpen, eraso edo larderi sexista irmotasunez errefusatzen dugula.

- Emakume guztiak horrelako gertakarien aurrean erantzutera animatzen ditugula, modu indibidualean edota kolektiboan, beharrezko babes sozial eta instituzionala bilatuz. Honek eskaini behar du, alde batetik, beldurrari aurre egiteko tresnak eta babes zein zaintza sareak eta beste alde batetik, erasotzaileentzako zigorgabetasunik ez dela egongo publikoki adieraztea.

- Gizon eta gazteak horrelako jarreraren aurrean konplizeak ez izatera, ez justifikatzera, ez izkutatzea edo ez ikusiarena ez egitera animatzen ditugula, izan ere, emakumeen kontrako biolentziari aurre egiteak gu guztion inplikazioa eskatzen du.

- Biolentzia sexistaren aurrean “Tolerantzia 0” printzipioak gidatuta, emandako egoerari aurre egiteko neurri komunitarioak hartu dituzten eragile zein kolektiboak babesten ditugula. - Urola Garaiko Udal Elkartek eta osatzen duten lau Udalerririk, indarkeri sexista aurreikusi eta aurre egiten dioten emakumeak lagundu, zaindu eta egindako kaltea ordaindua izateko konpromisoa berresten dugula.

- Urola Garaiko Udal Elkartek eta osatzen duten lau Udalerririk Koordinadora Feministak, “Aliantza feministez, erasoak gelditu” lemapean, antolatutako manifestaziora batzen direla. Manifestazio hau Urtarrilaren 30an, larunbatean, 20.30tan Areizaga-Kalebarren Plazatik aterako da eta hiritarrak animatzen ditugu bertan parte hartzera. Eta baita, Berdintasun Arloan antolatu dituen ekimenetan ere. Hain zuzen:

Hitzaldia “Indarkeri sexista ¿Nori dagokio (eskuhartzea)?” Hizlaria: Maitena Monroy. Otsailaren 4an, 19.30tan, Urretxuko Kultur Etxean. Bertan, modu individual zein kolektiboan, biolentzia sexistari nola aurre egin aztertuko da. Aurre egiten dioten emakumeak eta bere ingurunearentzat ahalduntzailea izan behar duen ikuspuntu batetik, gakoak eta zailtasunen inguruan hausnarketa egingo da. (Kartela atxikitzen dugu)

Autodefentsa feminista tailerra: Emakumeek biolentziari aurre egiteko estrategiak garatu eta tresna praktikoak landuko dira hemen. Honekin guztiarekin, beraien bizitzan zehar eman daitezkeen eraso sexistei aurre egiten ikastea du helburu tailer honek. Otsailak 26 (16.00-20.00) eta 27 (10.00-14.00), Zumarragako Jubilatuen etxean (Euskadi Plaza, 3).

(Kartela atxikitzen dugu)